EBAZPENA, 2017ko azaroaren 6koa, Funtzio Publikoko sailburuordearena, Euskadiko Enplegu Publikoaren Lege-aurreproiektuaren lanketa kontsulta publikora aurkezteko dena.

Estatuko legegileak garrantzitsutzat jo du herritarrek lege mailako arauak egiteko prozeduran parte hartzea. Horren ondorioz, hain zuzen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan xedatzen da kontsulta publiko bat bideratuko dela, jakiteko zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz:

a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
c) Arauaren helburuak.
d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legea, bere garaian, tresna garrantzitsuenetakoa izateko konfiguratu zen, eta, horri esker, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioetan enplegu publikoa kudeatzeko aukera eman du. Lege horren bidez, Administrazio Orokorrak, foru-diputazioek, udalek eta aplikazio-eremuan sartzen ziren gainerako erakundeek arau-esparru bera izan dute, “funtzio publikoaren euskal eredua” eratzeko, zioen azalpenean azaltzen zenez.

Proiektatutako arauaren premia, besteak beste, honako hauek araudi berriari egokitu beharrak dakar: azaroaren 7ko 16/1997 Legea, zeinaren bidez aldatu zen 6/1989 Legea; otsailaren 25eko 1/2004 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta honen erakunde autonomiadunetako kidegoak eta eskalak antolatzekoa; uztailaren 17ko 4/1992 Legea, Euskal Herriko Poliziari buruzkoa; otsailaren 19ko 2/1993 Legea, Euskal Herriko Autonomia Elkarteko unibertsitatekoez kanpoko irakaskuntzarako irakasleen kidegoei buruzkoa, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legea, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena.

Gaur egun, ezinbestekoa da arau-esparru berri bat onartzea, administrazio publikoa eraginkorragoa izan dadin eta herritarrengandik hurbilago egon dadin. Arauaren xedea da, hortaz, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartu zuen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua kontuan hartzeaz gain, herri-administrazioek giza baliabideak eta enplegu publikoa kudeatzeko behar duten modernizazioari bide ematea, herri-administrazioa finago eta zorrotzago ibiltzeko.

Euskal enplegu publikoaren kalitate instituzionala hobetu nahi baita, oinarrizko berrikuntza-elementuak txertatuz, enplegu publikoaren instituzioa profesionalizazio maila handikoa eta inpartziala izan dadin, eta lortzen dituen emaitzen ardura hartuko duena, herritarrei ahalik eta zerbitzu onena emateko.

Aurreproiektu honek ahalik eta aplikazio-eremu objektibo eta subjektibo zabalena definitu beharko du, nola aplikazio-eremu horretan sartuko diren administrazio, entitate edo erakundeentzat, hala administrazio, entitate eta erakunde horien zerbitzura dabiltzan era bateko edo besteko langileentzat.

Nahi izanez gero, J0D0Z-T11F7-8EHZ bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: http://euskadi.eus/lokalizatzailea

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T11F7-8EHZ en la sede electronica http://euskadi.eus/localizador

Euskal enplegu publikoaren organoak eta eskumenak arautuko ditu, bai eta zuzendaritza publiko profesionalaren irizpide orokorrak euskal herri-administrazioetan nolakoak izango diren ere. Enplegu publikoa eta bere egitura antolatzeko tresnak funtsezkoak izango dira, batez ere, lanpostuen analisia eta jardunaren ebaluazioa. Legearen aurreproiektu honek, lehenengoz aipatzen du karrera profesionalaren oinarria, garapen profesionaleko graduetan eta karrera profesional bertikal nahiz horizontalean bermatuta. Karrera profesionala aplikatzeko, ezinbestekoa izango da, sine qua non, erregelamendua taxutzea.

Horrez gain, enplegatu publikoak nola hautatu eta prestatu behar diren arautuko du legearen aurreproiektuak, funtzionario nola izan eta nola galdu izaera hori, lanpostuak nola hornitu eta langileak nola mugitu batetik bestera, ordainsarien sistema eta betebeharrak nahiz eskubideak nola antolatu, zer-nolako jokabidea izan behar den, zer bateraezintasun dauden, zer diziplina-araubide izango den, negoziazio kolektiboa nola eraman, euskal enplegatu publikoei hizkuntza-normaltasunak nola eragiten dien, eta funtzionarioen egoera administratiboak zer-nola diren.

Onartuko den arauak lurralde historikoetako foru-organoen eskumenak errespetatu beharko ditu; Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuaren 37. artikuluan eta Espainiako Konstituzioaren lehenbiziko xedapen gehigarrian onartuta dagoen foru-bermeen arabera. Era berean, antolamendu juridikoak onartzen duen toki-administrazioaren autonomiaren esparrua ere errespetatu beharko du.

Lege-aurreproiektu honen xedea da Euskadiko enplegu publikoa antolatzea, haren araubide juridikoa definitzea eta ondo kudeatzeko tresnak garatzea, oinarrizko legediaren mugen barruan, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak aitortzen dituen eskumenekin bat, baita euskal funtzio publikoa arautzea eta langileen araubide juridikoa zehaztea ere.

Arau hori onartzeak Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea –azaroaren 7ko 16/1997 Legearen bidez aldatua– indargabetzea ekarriko du.

Azaldutakoagatik, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura eta egitekoak ezarri zituen apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 4.c) eta 16. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Enplegu Publikoaren Lege-aurreproiektuaren lanketaren kontsulta publikoa egitea, hogei egun balioduneko epean, jakiteko zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikulua betez.

Bigarrena. – Aurreko atalean xedatutakoaren ondorioetarako, Euskal Enplegu Publikoaren Legearen proiektuan jasotako zioen azalpena eransten da, Gobernu Kontseiluaren Erabaki bidez onartua 2015eko abenduaren 22an egindako bilkuran eta Legebiltzarrera izapidetzeko igorria.

Hirugarrena.- Dokumentazio hori kontsultatzeko modua izango dute pertsona fisiko eta juridikoek, publikoek zein pribatuek, Gobernu Irekiaren interneteko parte-hartze atarian (www.irekia.euskadi.eus).

Vitoria-Gasteiz, 2017ko azaroaren 6a
Funtzio Publikoko sailburuordea,
ANDRÉS ZEARRETA OTAZUA.